

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2022ko maitzak 13 · 1228. zenbakia

BATZUETAN PASIOZ BESTEETAN OFIZIOZ



Etxeko aseguruak
estimatzen duguna
babesten du.
Altzariak,
elektrodomestikoak,
arropa, balio
handiko gauzak...
Sartu eta azalduko
dizugu!

**ETXE
ASEGURUA**

EUKi
ASEGURUAK

Euki-n zure etxearen
neurriko babes onena
eskaintzen dizugu

INFORMAZIO GEHIAGO: eukiseguros.com

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK 2022-2023

» Oñati gestio
heziketa

MGEP
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
KOE BARRIA ARIZTIARRIETA 5 COOP

IZEN-EMATEA

Malatzak 9tik 27ra

GEROA EREIN



Eskaintza akademikoa

OÑATI Gestio Heziketa	MGEP
-Administrazioa eta Finantzak	-Automatizazioa eta Robotika Industriala
-Zuzendaritza Maiztaritza	-Sareko Informatika Sistemak Administrazioa
-Salmenta Kodeaketa	-Fabrikazio Informatikoko Diseinua
	-Fabrikazio Informatikoko Produktzioaren Programazioa
	-Elektronika Industriala

www.mondragon.edu/ogh
slopezp@mondragon.edu
943 71 80 05

www.mondragon.edu/lanbideheziketa
enarpena.lan@mondragon.edu
654 298 704 - 654 298 683



eta kitto!

euskara elkarte

Euskara-planak, itzulpengintza-zerbitzua, diseinu- eta komunikazio-lanak...

ETA ORAIN...

Negozio, enpresa edo erakundeentzako
ikus-entzunezkoen zerbitzua



Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe Tel. 943 20 09 18

Jarraitu gaitzazu!



Eguraldiak lagun, gogotsu aritu ziren Berbetaneko partaideak eta herritarrak ostiralean egindako lehen familia arteko ginkanan. Proba guztiak gainditu ondoren, giro ezinhobean eta merendola batekin eman zitzaion amaiera ekitaldiari Antolatzaile zein parte hartzaileen balorazioa oso ona izan denez, datorren ikasturtera begira esperientzia errepikatzeko asmoa adierazi dute.

Joan den asteko eguenean 'Irudiz eta euskaraz' liburua aurkeztu zuen Josu Martinezek, Coliseoan, euskarazko zinearen inguruan inoiz egin den lanik borobilena. Horretarako, Begoña del Teso kazetaria izan zuen solaskide, zinea ardatz izan zen elkarrizketan.

Eibarrera egindako bisita aprobetxatuta, pare bat egun egin zituen gurean Del Tesok eta Untzaga Hotelaren atarian jaso gintuen, atsegin handiz.

@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA
Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitate@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK
elkarte@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose
Luis Gorostegi, Silbia Hernandez
eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez

DISEINUA
Maku Oruezabal

MAKETAZIOA
...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri

PUBLIZITATEA
Belen Ulazia

TELEFONOA
943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA
Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
7.800 ale

INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A
...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

**Eibar BHI-ko gurasoei oharra**

Eibar BHI-ko Guraso Elkartetik eskaera garrantzitsu bat egin nahi diegu guraso guztiei. Gure eskolan Hauspoa ize-neko proiektu interesgarrian murgilduta ibili gara azken urteetan (hemendik aurrera Hedatze Proiektua deituko da). Gure seme-alabek, goizeko klaseak bukatu ondoren, ikasgai ezberdinetan errefortzuak jasotzeko aukera izan dute, arlo ezberdinetako tailerrak izan dituzte edota musikal eder bat prestatzeko aukera ere izan dute.

Badirudi, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ez duela gehiegi sinesten orain artean izan dugun proiektu horretan, eta antolaketan aurrekoaren antzekoa den proiektu berria lortzeko zailtasunak ipintzen ari da.

Hori horrela izanda, eta Eibar BHI-ko klaustroak eta Eskola Kontseiluak proiektu berria lortzea nahi duenez, Hedatze Proiektua aurrera eramán ahal izateko, alde batetik, gutxienez guraso edo tutore legalen erdiak bozkatu behar du (1.506 guraso edo tutore legal gara, eta 753 boto behar ditugu), eta, bestetik, bozka horien bi herenak baiezko botoak izan beharko dira. Hau guztia aurrera eramateko, boto-ontziak jarriko dira eskolan maiatzaren 16tik 20ra, goizeko 8:00etatik arratsaldeko 18:00ak arte.

Oso garrantzitsua da zuen bozka. Ezin baduzue joan, Eibarren erroldatuta eta semea edo alaba eskolan duen edozeinek eman ahal du bozka zuen NAN zenbakiarekin.

Animatu eta hurbildu eskolara. Zuen laguntza guztiz eskertuko dugu.

Eibar BHI-ko Guraso Elkartea

Okerrak zuzentzen

Aurreko asteko aldizkarian (1227. alean), 5. orrialdeko "Argazki zaharra" atalean kaleratu genuen erretratuari buruzko testuan hankasartzea egin genuen: Valentina taberna Errebal kalean, Ibarkurutzeko iturriaren pareko etxearen beheko solairuan, gaur egun Iñaki Rezolaren harategia dagoen lokalean zegoela idatzi genuen, baina informazio hori ez da zuzena. Hasieran Julian Etxebarria kalean egon zen taberna eta, ondoren, Errebal kalean, merkatu plazaren parean. Bide batez, argazkian, ezkerretik hasita lehena, Candida Errasti eta, bigarrena, Valentina Aguirrebeña direla jakin dugu, okerraren berri eman digun eta aipatutako andren biloba eta birbiloba den Mikel Askasibarri esker.

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OHITTU DA → Betiko ohitura da. "Betiro ohittu da hamen, auzuak alkar laguntzia".

OILLANDA → Oilo gazte meua. "Oillandia, erretzeko; oillua, saldia egitteko".

Neska liraina, ederra. "Oilanda politta daukazu alabia".



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 13
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
ZAPATUA 14
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 15
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 16
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 17
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
EGUAZTENA 18
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 19
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
BARIXAKUA 20
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
GAUEZ BETI , 2022an, Mendinueta (Urkizu, 6)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Julia Valle Garcia**. 90 urte. 2022-05-6.
- **Teresa Gallastegi Arana**. 85 urte. 2022-05-7.
- **Jose Miguel Perez Urionaguena**. 80 urte. 2022-05-9.
- **Petri Aranzadi Mendizabala**. 92 urte. 2022-05-9.
- **Maria Esther Agirre Muñoz**. 95 urte. 2022-05-10.

Jaiotakoak

- **Merab Saqib**. 2022-05-6.



Gabilondo erostea ekialdea biziberritzeko aurrerapausu garrantzitsua dela dio Bilduk

Aurreko astean ezohiko plenoa egin zuten udaletxean, besteak beste Gabilondoren eraikina behin betiko erosi ahal izateko dirua bideratzeko, eta horren harira prentsaurrekoa eman zuten astelehenean Eibarko EH Bilduko ordezkariak. Esandakoaren arabera, Barrena kalean dagoen tailer zaharraren erosketarekin, “EH Bildurentzat ekialdea biziberritzeko akordioaren gako garrantzitsuenetako bat beteko da. Hiriko sarrera garrantzitsuenetako bat birgaitzeko aurrerapausu handia eman da. EH Bildurentzat Barrenako Gabilondo eraikina erostea zen ekialdea biziberritzeko akordioan gehitutako marra gorrietako bat. Alderdi guztietatik ari gara tailer industrial hutsak berrera-biltzeko eskaerak egiten. Gabilondoren birgaitze eta berrerabilera eredugarria eta etorriko direnen lehenengoa izatea espero dugu”.

EH Bilduko ordezkariak iritziak, birgaitze horretan asko dauka esateko Gabilondoren berrerabilera: “Pasealeku berriak pertsonen fluxua ez hipotekatzeko Gabilondoren berrerabilera eta bertan sor-

tuko den zonalde eta ekipamendu berriak erakargarria eta traktorea izan behar du, auzoari eta herri osoari zerbitzua emateko. Horretarako, Hirikiten elkarteak kontratatu dugu, eremuak dituen aukera guztiak eta legediak ahalbideratzen dituen berrerabilera posible guztiak aztertzeko.

Gabilondoren eskuhartzeaz gain, urbanistikoki ere kale osoaren itxura aldatzea da asmoa, hiribide eta koexistentzia itxura emanez, argiteria berriekin, zuhaitzekin... Gainera, kaleko beste bi eraikinekin lanketa egitea ere gehitu genuen alderdi sozialistarekin adostutako akordioan. Eta, orain dela gutxi iragarri den bezala, kalearen beste aldean, Barrena 34an, babestutako etxebizitzak egingo dira eta, horrekin batera, aldameneko pegorari irisgarritasuna hobetuko zaio”.

Agerraldia amaitu baino lehen, Eibarren 700 tailer baino gehiago hutsik daudela eman zuten adituzera eta, ildo horretan, Udalarik “ausardia gehiago” izateko eskatu nahi diote, “horiek erosi, birgaitu eta berrera-biltzeko”.



Nordic Walking egiten hasteko ikastaroa antolatuko du Kirol Patronatoak

Ekaineko barixakuetan egiteko ibilera estilo horietako saioak antolatuko ditu Eibarko Kirol Patronatoak. Saioak goizez eta arratsaldean egin ahal izango dira eta ordu eta erdi-koak izango dira: goizetan 11:15etik 12:45era eta arratsaldean 17:30etik 19:00etara. Hastapen mailako ekitaldi horiek ekainaren 3an, 10ean, 17an eta 18an burutuko dira. Azkenik, beraz, ez da barixakua izango, ekainaren 24a San Juan eguna delako; horren ordez, hilaren 18an amaituko da ikastaroa.



Adimen emozionalari buruzko tailerra

Itsasne Gallastegui Agifeseko psikologoak adimen emozionalari buruzko tailer teoriko-praktikoa emango du martitzenean, elkartearen Eibarko zentroan, 18:00etatik 20:00etara. Emozioak ezagutzeko eta erregulatzeko beharraz arituko da psikologoa. Informazio gehiagorako, 943 47 43 37 telefono zenbakira deitu.

AUTUAN

ESKAILERA BAT JARTZEKO KALEA ITXIKO DUTE BIHAR

Barrena kaleko eraikin batean eskailera berria jarri behar dutela eta, bihar 15:00etatik 16:00etara kale hori itxita egongo da bi noranzkoetan, Udaltzaingotik jakinarazi dutenez. Seinaleei “behar bezalako arreta jartzeko” ere eskatzen zaie gidariei.



IOSU RETOLA OMENDUKO DUTE HILAREN 22-AN

Egiari Zor Fundazioak antolatutako ekitaldian, orain dela 35 urte gaixorik hil zen Iosu Retolazako preso izandakoa gogoratu eta aitortza egingo diote. Txaltxa-Zelai auditoriumeko ekitaldia “xumea” izango da eta eguerdiko 12:30ean hasiko da. Bertan “Iosu gogoratzeko hitzak, musika zuzenean eta Egiari Zor-en aldetik hitzaldi laburra” izango dira. Retolazak eta bere senideek merezi duten aitortza eta erreparazioa eskaintzea da antolatzaileen helburua.



“Udako kuadrilla” udaleku irekiak antolatu dira dibertsitate funtzionala dutenentzat

Maiatzaren 20ra arte zabalik dago Nuala Elkartearen “Udako kuadrilla” udaleku irekietan izena emateko epea. Nuala Elkartek dibertsitate funtzionala dutenak gizarteratzearen alde lan egiten du eta, Elgoibarkoa izan arren, zerbitua eskualde osoari eskaintzen dio. Bigarren urtez jarraian antolatu dituzte udalekuak. Helburua da dibertsitate funtzionala duten edo ez duten herriko eta Debabarreneko gazteak (16 urtetik gorakoak) uztailean eta abuztuan astero hiru arratsalde elkartzera (astelehen,

eguzten eta eguenetan, 17:00etatik 20:00etara), begiraleekin batera planak egiteko. Jarduerak eguraldiaren arabera izango dira (hondartza, igerilekuak, paseoak, merendolak, ur jokoak...)

Iaz bezala, Elgoibarko Santa Klara komentu zaharreko lokalak izango dituzte abiapuntu. Izena ematen dutenek hamabostaldia edo hilabete osoa aukeratu dezakete.

Izena emateko edo informazio zehatza eskatzeko Nuala elkartera idatzi daiteke, nualaelkartea@gmail.com helbidera.

Txaltxa Zelain egindako jarduerekin agurtu zituzten Multikirolak

Aurreko zapatuan, Multikirolak. Ekintza agurtzeko, Txaltxa Zelaian herri kirolak, jolasak, ginkana eta altxorraren bila egin zituzten. Multikirolak ekintza Lehen Hezkuntzako 3.etik 6. mailara arteko umeei bideratuta dago eta ikasturtean zehar, urritik maiatzera bitartean burutzen da.





Domekan ospatuko da San Isidro Arraten

Domekan ospatuko da Isidro Deunaren eguna Arraten, Debemen Debabarreneko Landa Garapen Elkarteak antolatuta, Eibar, Elgoibar, Mendaro eta Soralueko Udalak eta Itziarko Entitate txikiaren laguntzarekin. Egitaraua 11:00etan hasiko da, mezarekin; bertan bertsolariak eta trikitilariak izango dira. Ondoren, aurrekua dantzatuko dute Kezka taldekoek eta prozesioa egingo da. Jarraian, Debabarrena eskualdeko produktuen dastaketa egongo da eta 12:30etan hasiko da San Isidroetako XVIII. Aizkolari Txapelketa.

Bazkaria Kantabria jatetxean izango da, 14:30etan (joan nahi duenak bertara deitu beharko du, 943 121 262 telefonora). Eta 17:30etan idemak hasiko dira.

Egun horretan Arratera joan nahi duten guztientzat autobusa egongo da. Igotzeko autobusak San Juan kaleko autobus geltokitik irtengo dira, 09:00etan, 10:00etan, 11:00etan, 13:00etan, 18:00etan eta 19:00etan. Jaisteko autobusak, berriz, eliza aldamentetik irtengo dira, 09:30etan, 10:30etan, 11:30etan, 13:30etan, 18:30etan eta 20:00etan.

Herriko bankuak ortzadarraren koloreekin margotzeko gonbitea

Maiatzaren 17a LGTBI+ fobiaren aurkako Nazioarteko eguna da eta, ekainaren 28a LGTBI+ Harrotasunaren Nazioarteko eguna izanik, iaz bezala, egun tarte horretan, herriko banku batzuk ortzadarraren koloreekin margotzeko gonbitea egin dute Berdintasun Zerbitzua-Andretxeatik, ekintza parte-hartzaile baten bidez. Informazio gehiago jasotzeko edota parte hartzeko andretxea@eibar.eus helbidera idatzi edo 688 853 440 / 943 543 938 telefonoetara deitu daiteke.



Gipuzkoako Foru Aldundiko garbitzaileak KPIa ziurtatzeko borrokan ari dira

Aurreko barixakua hamabigarren greba eguna izan zuten Gipuzkoako Foru Aldundiko eraikinen garbiketarako azpikontratatuak langileek eta, eguerdian, protesta egiteko elkarretaratzea egin zuten Legarren, Egogain gerontologia zentroaren parean. ELA, LAB eta ESK sindikatuek deitutako grebaren jarraipena "positibotzat" jo dute sindikatuetak ordezkariek: "Negoziazio kolektiboan KPIa ziur-

tatzeko borrokan ari dira. Patronalak bere planteamenduari buruzko mugimendurik egin gabe jarraitzen du: 2021erako soldatak izoztea, 2022rako %1,5eko igoera eta 2023rako %1,75eko igoera. Azken bileran patronalak oso argi utzi zuen oraindik ere ez duela KPI-ri lotutako planteamendu ekonomikorik egin nahi". Langileek borrokatzen jarraituko dutela diote, eskatzen dutena lortu arte.



Ondo baino hobeto ospatu zituzten Santa Kurutz jaiak

Maiatzaren 3a, aurreko asteko martitzena, izan zen Santa Kurutz eguna eta domekan jende mardoa elkartu zen ermita inguruan, Gorrosta-Mandiolako baserriarrek prestatutako jarduerekin gozatzeko: meza, ume eta helduentzat jolasak, herri-kirolak aizkolarari eta harrijasotzaileen eskutik, musika, dantzak, bazkaria Ixuan, erromeria Oier Balzola eta Unai Andonegirekin... Bestalde, Santa Kuru-

tzeko jai-batzordeak antolatutako lehiaketako irabazlea Ane izan zen: Mandiola Gaiñeko gaztak 1,176 kilo pisatu zituen eta bera ibili zen gertuen. Eguraldi zoragarriarekin, ondo baino hobeto ibili ziren beste batzuetan baino zerbait laburragoak izan diren jaiak ospatzen. Goizetik hasi eta iluntzeraino, egun osoan egon zen aparteko giroa Santa Kurutzen, argazkietan ikus daitekeen moduan.



Ederto girotu zuten Urkizu Galiziako Etxekoek antolatutako jaiak

As Burgas Galiziako Etxekoen eskutik, asteburu osoan zehar ospatu ziren XXXVII. Dia das Letras Galegas jaiak Urkizu aldean. Ohikoa den bezala, barixakuan jai batzordearen taberna zabaltzearekin batera, Os Galaicos taldearen musikaren erritmora hasi ziren ospakizunak: olagarroa, enpanada, Ribeiro eta Albariño ardoak, dantzak, musika,

umeentzako ekintzak... Eguraldia lagun, giro aparta bizi izan zen asteburuko hiru egunetanw.

Bideoa gure YouTube kanalean ikusteko



“Euskara salbatu nahi zutenek museo batean gordetzeko salbatu nahi zuten”

BEGOÑA DEL TESO • Kazetaria



Joan den asteko eguenean ‘Irudiz eta euskaraz’ liburua aurkeztu zuen Josu Martinezek, Coliseoan, euskarazko zinearen inguruan inoiz egin den lanik biribilena. Horretarako, Begoña del Teso kazetaria izan zuen solaskide, zinea ardatz izan zen elkarrizketan.

Eibarrera egindako bisita aprobeztatuta, pare bat egun egin zituen gurean Begoña del Tesok, eta Hotel Untzagaren atarian jaso gintuen, atsegin handiz. Del Tesok lotura berezia du Eibarrekin, elkarrizketan zehar argi lagatzen digun bezala. Elkarrizketatzaile famatua Donostian, zine-kritikaria Gipuzkoan eta bizitzaren kronikaria Euskal Herrian, estilo propioarekin egin du kazetaritza eta, zergatik ez, aholku batzuk ere eskatu dizkiogu.

Zer moduz Josu Martinezekin izan zenuen solasaldia?

Oso ondo! Nahiz eta lan mardula eta sakona izan, datu askorekin eta erreferentzia handiekin, maltzurkeriaz gainezka dagoen lana da Josurena; bai euskal zinemarekiko, bai gure pertsonaia sakratu guztiekiko eta baita gure txikikeriarekiko ere. Era berean, oso itxaropentsua eta esperantzaz betea da. Ez Josuk ez nik ez dugu onartzen ez banderarik ez Jainkorik eta, orduan, Josuk jo eta fuego landu du euskarari zor diogun errespetua; ez bakarrik errespetu folklorikoa, baizik eta benetako maitasuna, bizia. Eta hortik abiatuta, Toy Story pelikulako Buzz Lightyearrek zioen bezala: zerumugatik haratago!

Orduan, nolako iruditu zaizu liburua?

Alde batetik, mito pila bat pikutara bidaltzen ditu. Eta, bestetik, lan sakona egin du, lehen momentutik ikusten baita ikerketa ikaragarria egin duela. Gero, beti ematen du Hego Euskal Herria dela joan beharreko lekua, baina euskal zinemaren kasuan Josuk Iparraldera begira jartzen gaitu, hegoaldean baino askoz lehenago hasi zirelako euskaraz mintzaturiko zinema egiten, hemen baino askoz lehenago hasi zirelako emakumeak zinema egiten, lehenago hasi zirelako euskaraz mintzaturiko irratia eta telebista... Badakit Hego Euskal Herrian diktadura egon zela, baina lehenagotik dator kontua. Askotan goraiatu da Oteiza, euskaltasuna eta abar, baina ez zion inolako errespeturik euskarari. Penagarria da, euskara museoko pieza moduko bat bezala sentitzen zelako. Euskara salbatu nahi zutenek museo batean gordetzeko salbatu nahi zuten, ez zuten irudikatzen edo amets egiten komunikatzeko tresna ikaragarria izan zitekeela. Liburuak euskaltasunaz hausnarketa egiteko balio du.

Liburua irakurrita, zorretan geratzen zinela zenion elkarrizketa batean. Zorretan norekin?

Ahaztutako jendearekin. Denok izan gara harroputz samarrak. Gazteak ginenean mundua eta zinema salbatuko genituela uste genuen, eta Josuk orain ikusi





“Orain, zinema egiten da zinema egiteko, eta euskarazkoa da egilea euskalduna delako edo euskara maite duelako”

“Batzuetan pasioz egiten dut lan eta beste batzuetan ofizioz”

duena nik sasoi hartan beharbada ez nuen ikusi. Jakina, orain askoz gehiago dakit edo beste begirada batekin ikusten ditut zinema, euskara, Euskal Herria eta neure burua. Niretzat momentu hartan egiten ziren pelikulak erdipurdikoak edo halamoduzkoak ziren beste batzuekin alderatuz. Ez dut neure burua zuritu nahi, baina kontuan hartzen badugu munduan zer ari zen egiten gu zinema egiten hasi ginenean, 60. hamarkada inguruan... Lehen, zinema, euskara salbatzeko egiten zen. Orain, ostera, zinema egiten da zinema egiteko, eta euskarazkoa da egilea euskalduna delako edo euskara maite duelako. Militante izatea oso gauza astuna da.

Nola sartu zitzaizun zinemarekiko pasioa?

Normalean bezala, bizitzaren karanbolen ondorioz. Lagunak zinemara joaten ziren eta zine-forum bateko kideak ziren, eta horregatik. Foballa ere gustatzen zait, lagun minen anaiek Atotxan foballean jokatzen zutelako. Ia publikorik ez zegoenez, foballaz asko ikasi nuen entrenatzailearen alboan jarrita (barreak). Gustuak pasio bihurtzen dira eta zinemaren kasuan baita ofizio ere.

Kazetaritzara ere karanbolaz iritsi zinen?

Beno, ez naiz kazetaria. Euskaraz nolabait zekien eta beharbada ondo idazten zuen emakumea nintzen, eta

momentu eta une egokian egotea tokatu zitzaidan. Karanbolaren kontua errebindikatzen dut. 62 urte ditut eta nire sasoi ez zen gaur egungoa bezalakoa.

“Informazio zehatza nahi duenak ez dezala nigana jo”, zenion Berriari eskainitako elkarrizketa batean. Nola bizi duzu kazetaritza?

Jendea liluratzea da nire asmoa. Gero, datuek eta horrek guztiek ez naute gehiegi kezkatzen. Hori bai, ez naiz gezurretan hasiko eta ez dut esango Untzaga Elgoibarren dagoenik. El Diario Vascoren Donostiako edizioan elkarrizketa bat egiten dut egunero, 6.000 inguru egin ditut dagoeneko. Batzuk uste dute elkarrizketak publizitatearen truke egiten ditudala, baina ez, istorio majo bat behar dut zerbait kontatzeko. Bestetik, kritiken kasuan, ez dago munduan gauza subjektiboagorik kritikak baino. Norberaren iritziak eta gustuak janztea besterik ez da egin behar dena.

Kazetaritzan arlo ezberdinak lantzen dituzu. Nola egiten duzu lan? Enkarguak jasotzen dituzu? Libre zabilta?

Batzuetan ondo pasatzen duzu, maiz aurkitzen duzun jendea jatorra da eta asko ikasten duzu eurekin, eta beste batzuetan ofizioa da. El Diario Vascoren zine lankideekin kritikak banatzen ditugu, baina pelikula gehienak ikusi behar ditut egunkarian, irratian edo



Joan den asteko egunean 'Irudiz eta euskaraz' liburuaren aurkezpenan egon zen Begoña del Teso.

bestelakoetan berba egiteko. Batzuetan gertatzen da astelehen euritsu bateko gaueko emanaldiko pelikula txar bat ikusi behar izatea eta pentsatzen dut nahiago nukeela denda bateko saltzailea izatea, baina beno. Batzuetan pasioz egiten dut lan eta beste batzuetan ofizioz. **6.000 elkarrizketa egin eta gero, zein da elkarrizketa on bat egiteko gakoa?**

Normalean kaleko jendea elkarrizketatzen dut. Jende horri ohiko elkarrizketa ofizial bat eginez gero, beldurtu egingo dira, normala denez, eta are gehiago muturren aurrean grabagailua jarriz gero! Eta kontua ez da bakarrik beldurtu egingo direla, baizik eta agian harrotu egingo direla. Adibidez, okin batek grabagailuaren aurrean ez du esango aitonarengatik hasi zela ogia egiten eta ofizioa berarengandik hartu zuela, baizik eta ogia jende guztiaren elikadura delako dela bera okina edo horrelako zerbait. Orduan, eurekin solasaldia edukitzen dut eta jasotakoarekin istorio bat kontatzen dut. Testuinguruak berebiziko garrantzia du, istorioa janzteko balio didalako. Horrela irudikatzen dut: elkarrizketatua eta ni hizketan gaude eta, bat-batean, irakurlea bion artean sartzen da; irakurleak alde egingo du, eta beharbada guk hizketan jarraituko dugu. Beraz, elkarrizketa itxura duen istorio bat kontatzen dut. Bestetik, beldurtu egiten

nau oso diskurtso osatua duen jendeak, hortik ezin dudalako istorio bat kontatu. Ohiko elkarrizketa bat egitera behartzen nau eta ez naiz gauza.

Nolako lotura duzu Eibarrekin?

Alde batetik, Errepublikaren kontuagatik, maitasun berezia diot Eibarri. Askotan etorri naiz apirilaren 13an eta 14an Errepublikaren aldarrikapena egitera. Bestetik, motorrak gustuko ditut eta askotan etorri naiz Lambretta motorren bilkuretara. Gero, armak ditut gogoko eta esgrima egiten dut. Eibarren suzko armengatik zarete famatuak, baina sasoi batean ezpatak ere egiten ziren hemen. Bestalde, nahiz eta askok toki itsusia dela esan, niri asko gustatzen zait toki aldapsu eta bihurri hau. Oso harro nago arkitekto askok onartu dutelako hemengo eraikuntza askok toki bat merezi dutela arkitekturaren entziklopedietan. Gainera, foballa izugarri gustatzen zait, batez ere foball gogorra. Realeko bazkidea naiz, nahiz eta 'mingafria' batzuk izan, baina Lehen Mailara igo zenean Eibarrek laguntza eskatu zuenean akziodun egin nintzen. Pentsa, Realeko bazkidea izanik, inoiz ez zait okurritu akziodun izatea, baina Eibarrekoa bai.

Ba ea laster berriz Eibarren elkartzten garen Lehen Mailara igo garelako ospatzeko.

Hori da!



Armagintzaren Museoarekin zer egin pentsatzen



Eibarko Udalak Armagintza Museoaren etorkizunaren inguruko gogoeta-prozesua hasi du, industria-ondareari balioa emateko asmoz. “Portaleko egungo espazioa ez da nahikoa herriaren ondare industrial eta historiko aberatsa gordetzeko eta balioan jartzeko”, Udalaren ustez, eta oinarriak jarri nahi ditu museoak etorkizunean zer izan behar duen erabakitzeke.

Portalea eraikinaren 5. solairua txiki geratu da Armagintzaren Museoarentzat. Hori atzematen da, behintzat, Udalaren berbetatik. Erakundearen ustez herriak ondare industrial garrantzitsua du eta, bere ustez, “gaur egun ondare horren zati txiki bat baino ezin da erakutsi”.

Gabezia horri erantzun bat emateko asmoz, “etorkizuneko museoaren oinarriak definitu eta finkatu beharko lirateke”, Udaletik diotenez. Batetik, museoak eskaparate bihurtuz, herritarrak herriko industriaren historiara hurbiltzeko. Eta, bestetik, denboran iraungo duen eta, batez ere, ekonomikoki jasangarria izango den egitasmo bideragarri bat garatuz.

Herriko ondarean eskaparateak izateaz gain, gordailu ere bada museoak. Mila arma baino gehiago, 5.000 industria- eta artxibo-objektu, ehun pieza artistiko eta 6.000 dokumentu inguru ditu eta, Udalak dioenez, “material guztia gordetzeko leku gehiago behar da”.

Etorkizuneko museoak pentsatzen

Etorkizuneko museoak pentsatu aurretik, hausnarketa-prozesua jarriko du abian Udalak. Batetik, herriaren museo-beharrak atzemateko eta aztertzeke; eta bestetik, aztertu eta gaitu beharreko gabeziak eta mugak zerrendatzeko. Hori bai, dagoeneko argi dute lehentasunetako zeregin bat museoaren kokaleku berria zehaztea dela. “Museoaren inguruan egindako azken azterketek argi eta garbi ondorioztatu dute Portaleko egungo espazioa ez dela nahikoa Eibarko ondare industrial eta historikoa gordetzeko, erakusteko eta balioan jartzeko”, dio Udalak. Kokaleku berriaren harira, El Diario Vasco egunkariak herriko zenbait eragileren

proposamena argitaratu zuen. Bertan agertzen zenez, eragile horriek (Eibar Creaktiva, Armeria Eskola, Ingeniaritza Eskola, Zuloaga Fundazioa...) El Corte Inglesen eraikina proposatzen dute museoaren kokaleku berri bezala, hain zuzen ere eraikinaren ezkerreko zatia (Ego Gaietik begira).

El Diario Vasco informazioaren inguruan Jon Iraola alkateak adierazi duenez, “azkenaldian, hainbat komunikabidetan herritarren proposamenak azaltzen ari dira gaiari buruz, nolakoa izan beharko lukeen museo eta non egon beharko litzatekeen. Planteamendu horiek, ezin bestela izan, kontuan hartu behar ditugu. Nolanahi ere, Alkatetza eta Udalaren talde teknikoa da prozesua gidatu behar dira eta planteamendu bat egin behar dutenak; gustatuko litzaidake, gaiaren garrantzia aintzat hartuz, planteamendu horrek ahalik eta adostasun eta kontsentsu handiena izatea. Dena dago zabalik.”


Eragileek proposatutako kokalekuaren gainean, oster, zera dio: “Orain dela gutxi El Corte Ingleseko zuzendaritzarekin bildu naiz, jakiteko zein den merkataritza-zentroak instalazio horietan museo jartzeko duen jarrera Udalarekin batera lan egiteko. Oraingoz, lehen kontakua baino ez da, eta aukera emango liguke planteamendu zehatzagoak eta errealistagoak egiteko”. Zentzu horretan, “goragoko beste administrazio batzuen konplizitatea” bilatzen ari dira balizko inbertsioei ekiteko.

XX. mendeko prebentzio-kartelen erakusketa

Armagintzaren Museoak XX. mendeko prebentzioari buruzko kartelen erakusketa zabaldu zuen aurreko astean, Fraternidad-Mupresparen eskutik, eta ekainaren 5era arte egongo da ikusgai.

48 kartel daude ikusgai, laneko segurtasunaren, prebentzioaren eta laneko osasunaren ingurukoak; eta, horrez gain, prebentzioaren irudiak joan den mendean izan zuen bilakaera ikusi ahal izango da.

Erakusketa ibiltaria da eta prebentzio-kultura sustatzea du helburu. Horrela, Espainiako hainbat aireportutan egon da: Lanzaroten, Fuerteventuran, Kanaria Handian, Malagan, Madrid Barajasen eta Palman, baita Madrilgo Chamartinen, Kordoban, Zaragozan, Valladolid Campo Granden eta Logroñon, besteak beste.



“Portaleko egungo espazioa ez da nahikoa Eibarko ondare industrial eta historikoa gordetzeko, erakusteko eta balioan jartzeko”



Armagintzaren Museoak herriko ondarearen eskaparatea eta gordailua da. EKHI BELAR

“Antzinako Erroma oso basatia zen zigor kontuetan, han ez zegoen birgizarteratzerik”

ROBERTO VILLARREAL • Idazlea



Roberto Villarreal idazle eibartarrak ‘El proyecto Escipión’ liburua argitaratu du, bere bigarren eleberria. Lanak Nestor Azcona udaltzainaren ikerketak kontaktzen ditu, Tarragonako Els Munts antzinako erromatar hiribilduan gertatutako hilketak basati baten harira.

Roberto Villarreal kazetaria da eta, Nafarroako Unibertsitatean lizenziatu ondoren, El Diario Vascon, Diario de Burgosen, Tarragonako Diarin eta Salamancako La Gaceta egunkarietan egin du lan. 2010az geroztik, komunikazio korporatiboko aholkularitza, kazetaritza eta idazle lanak uztartzen ditu. Horrela, hilaren 20an, 19:00etan, Portaleko areto nagusian egongo da liburu berria aurkezteko.

Zein saltsatan sartzen da Nestor Azcona, liburuko protagonista?

Erritual itxurako hilketak batzuen kasua erortzen da bere eskuetan. Berak ez daki ezer horrelako gauzen inguruan, baina poliki-poliki ikerketan murgiltzen da eta konturatzten da norbaitek erromatarren sasoiaren bezala egin nahi duela justizia. Antzinako Erroma oso basatia zen zigorrei dagokienez, han ez

zegoen birgizarteratzerik. Orduan, polizia autonomikoaren ikerketak beste bide bat hartzen duen bitartean (mafien arteko gerra), Azconak eta bere moduko hainbat lagun berezik beste hipotesi bati ematen diote forma.

Liburua Tarragonan kokatzen da, ondo ezagutzen duzun eta erromatarren aztarna asko dituen hirian.

20 urte inguru daramatzat Tarragonan bizitzen eta ondo ezagutzen dudalako aukeratu dut, baina horrelako hiri zaharren inguruan interesatzen zitzaidana da hiri modernoaz lur azpiko hiri baten gainean bizi dela, eta lur azpiko hiria misterioz eta aztarnaz beteta dagoela. Eguneroko bizitzaren azpian erreinu ilun bat dagoela pentsaraztea gustatzen zitzaidan. Gainera, beti gustatu zait antzinako zibilizazioen gaia.

Nobela beltza den arren, erromatarren sasoiaren inguruko do-

kumentazio lana egin behar izan duzu liburua idazteko?

Bai, bi urte inguru behar izan ditut liburua idazteko. Izan ere, kazetaria naiz eta aldizka egin ahal izan dut lan liburuan. Dena dela, urte gehiago daramatzat erromatarren sasoiari buruzko informazioa biltzen. Orduan, irakurleek nobela beltza aurkituko dute (hilketak, ikerketak...), baina nobela historikoak atsegin dituztenei ere gustatuko zaiela uste dut. Gainera, dokumentazio historikoak garrantzia du, jakintza hori berebizikoa delako hilketak ikertzeko.

Kazetaria izateak liburua idazteko orduan lagundu dizu?

Kazetaritzak ofizioa ematen dizu idazteko orduan. 30 urtez egunero idazteak arintasuna ematen dizu orri zuriaren aurrean jartzeko orduan, baina kazetari-lana eta liburu bat idaztea oso erregistro ezberdian dira. Kazetaritzako testu luze-



Kazetari eta idazle lanak uztartzen ditu Roberto Villarrealak.

nak erreportaje luzeak izaten dira, baina orain dela urte batzuk ikus-entzunezko gidoiei buruzko masterra egin nuen eta horrek istorio luzeagoak kontatzeko lagundu dit. **20 urte daramatzazu Tarragonan eta aurretik beste hamar egin zenituen Gaztela Leonen. Nolakoa izan da zure bizitza Eibar laga zenuenetik?**

Neure burua eibartartzat dut oraindik eta Eibar eta Euskal Herria beti datoz nirekin. 18 urterekin Iruñeara joan nintzen ikastera, gero Madriler... Hori bai, Eibarko El Diario Vascon hasi nintzen lanean, Alberto Etxaluze eta Jose Antonio Rementeriarekin. Handik Donostiko Cadena Ser irrati-katera joan nintzen, gero Madriler, Burgosera ondoren, Tarragonara, Salamancara... Kazetaritzak eraman nau toki batetik bestera.

Beraz, kazetaritzan ere arlo ezberdinak landu dituzu.

Bai, baina oinarria beti da berdina. Eduki sortzailetzat dut neure burua. Beti gustatu izan zait letren kontua eta lengoaia asko zaintzea. Horregatik, irratia gustatzen zitzaidan arren, oso berehalakoa da eta denbora falta zaizu esan behar duzuna zaintzeko.

Hilaren 20an Eibarren izango zaitugu liburua aurkezten. Gogotsu? Nolako saioa eskainiko duzu?

Ilusio handiz joango naiz Eibarre-ra. Nire familiaren zati handi bat bertan bizi da, txikitako lagunak ditut eta bi hiletik behin Eibarrera edo Donostiara joaten naiz, ama han bizi delako eta arreba Olaberrian. Orduan, pozik nago proiektu hau familiaren eta lagunen aurrean aurkezteko aukerarekin. Kanpoan bizi naizenez, bereziki polita da Eibarko jendeak nolako lana egiten duzun ikustea. Azken neurrian, ia beti gaude etxera edo jaioterrira begira. Neure kasuan, urte askoan

kanpoan bizi arren, oso lotura estua izaten jarraitzen dut Eibarrekin.

Hirugarren liburua lantzen hasia zarela irakurri dugu. Horrela da?

Baten batek esan dit 'El proyecto Escipión' nola amaitzen den ikusita liburuak jarraipena eduki beharko lukeela. Ez nuen horrela aurreikusten, baina egia da jarraipena eman ahal zaiola. Dena dela, beste proiektu bat dut buruan. 2021ean amama hil zen 104 urterekin eta oso buru argiarekin. Pentsa, 1917an jaio zen, I. Mundu Gerra amaitu baino lehenago! Memoria miresgarria zuen eta berarekin izandako solasaldien hamarnaka orduko grabazioak ditut. Bera Galiziatik etorri zen, Allariz (Ourense) inguruko herrixka batetik, eta bitxia da bere haurtzaroan bizitakoa eta gaur egungo bizitza alderatzea. Gezurra dirudi 100 urtetan mundua hainbeste aldatzea. Beraz, gai horren inguruan zerbait egitea nahiko nuke.



IOKIN ELORTZA

“Zelulitisa”

Ez, ez nator milagrorik eskaintzera, honetan ere milagrorik ez dago. Zelulitisa oso gaitz ezaguna da, gaitz gehienbat estetikoa, baina, infekzioa medio, larriagotu eta arazo medikoa bihurtu daitekeena. Baina, badakizue lagunok, kasu gehienetan estetikoa denez, urte osoan zehar zaintzen egon beharrean, hondartzan pentsatzen hasten garenean gogoratzen gara berataz. Zer egingo diogu ba, gure estiloa.

Baina zer da zelulitisa.

Gehienetan oinarri hormonala duen eta ur-erretentzioa eta hanturarekin batera sortzen den koipe-metaketa lokalizatu bat da zelulitisa, eta ez dauka zer ikusirik gizentasunarekin. Arazoa, gehienbat, hanketan sortzen da eta baskularizazio arazoak ere sortzen ditu. Horrek, azalaren itxura aldatzeaz gain, gogortasuna eta mina ere eragin ditzake.

Eta zer egin dezakegu?

Alde batetik, bizitza osasungarria izan, hau sorpresa; ez erretzea, alkoholik ez edatea, janari pikante gehiegirik ez jatea, elikadura osasungarria edukitzea.... Horrek guztiak koipe-metaketa txikiagoa izatea eragingo du eta baita odolaren zirkulazioa hobetu ere (horregatik pikantearena, arraroa egin zaizu, ezta?).

Ariketa fisikoa ere oso garrantzitsua da. Gorputzeko koipea linfa-sistemak dreinatzen du, eta hori ez da bihotzaren bidez ponpatzen, giharren kontrakzioen bitartez ponpatzen da eta horretarako ariketa behar da. Probatu duzue igogailua utzi eta etxera eskaileretatik igotzea?

Eta, azkenik, gaitza hobetzen lagun diezaguketen produktuak ere badaude. Alde batetik, ur-erretentzioa dreinatzeko produktuak. Askotarikoak, anana, te Berdea, urkia... osagai ezberdinez osatutakoak. Horiek, bide batez, hantura jaitsi eta baskularizazioa hobetuko dute. Eta, bestetik, koipea deusestatzen laguntzen duten produktuak. Horien artean ezagunena, kafeina. Lipasa entzima aktibatu eta lipolisia handitu eta mikro-zirkulazioa hobetuko du.

Beti ere lagungarria da produktu horiek masaje baten bidez hartzea eta astean behin azalari exfoliazio bat egitea, printzipio aktiboak azalean hobe sartu eta eragin handiagoa lortzeko.

Esandakoa, ez dago milagrorik, baina gauzak ondo egingez hobetuko ditugu. Zaindu.

"Gaitza gehienbat estetikoa da, baina larriagotu eta arazo mediko bihurtu daiteke"

Tantanez Tantan euskararen olatua badator!

Aurten bai. 2020an pandemiagatik ezin izan zen ohi bezala antolatu, baina aurten bai; maiatzaren 21ean iritsiko da Eibarrera bazterrak euskaraz bustiko dituen euskararen aldeko olatua. Urkizutik Untzagaraino eskutik eskura eramango dugu euskaltzaleok euskaraz eta ilusioz beteriko gantxilla.



Eibarko euskalgintza osatzen duten taldeek (ikastetxeak, euskaltegiak, kultur, kirol, euskara eta aisialdi taldeak, norbanakoak...) azkeneko ikutuak ematen ari zaizkio aurtengo ekitaldiari. Buru-belarri dabilta azken ordukoak lotzen, maiatzaren 21ean dena primeran irten dadin. “Gogotsu gaude gainera. Azkeneko bi urteetan ezin izan dugu ia ezer antolatu. 2020ko Tantanez Tantan ere ez zen ohikoa izan. Bideo zoragarri bat osatu genuen eibartarrok bidalitako bideotxoekin, baina euskarak kalera irten behar du, eta aurten bai: bazterrak euskaraz busti nahi ditugu euskararen olatuarekin”, diote antolatzaileek.

Urkizutik Untzagara giza katean

Urtean zehar Eibarren euskararen alde hainbat ekitaldi egiten dira, baina Tantanez Tantan berezia da eibartarrantzat: “Herriak oso modu berezian bizitzen du egun hori; are gehiago aurten, 2018az geroztik ez baitugu ospatu eta euskaltzaleok





Eguaztenean aurkeztu zuen Eibarko Euskalgintzak aurtengo ekimena. SILBIA HERNANDEZ

gogotsu gaude”. Aurreko urteetan egindakoari jarraituz, eguerdiko 12:00etan Urkizuko iturrian gantxilla urez bete eta Untzagaraino eramango da, eskutik eskura giza katean, “eibartarrok euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatzeko. Herriko elkarte eta taldeak gonbidatzen ari gara, baina ekimen irekia izango da, norbanako moduan ere edozeinek har dezake parte”. Jai-giroan egingo da euskararen olatua, “hankapaloak, trikitalariak, musika... Giro polita egongo da, hasieran, ibilbidean zehar eta baita amaieran ere”.

Ibilbidea betetzeko 700 lagun beharko dira

Urkizuko iturria eta Untzagara arteko ibilbideak kilometro inguru duela kalkulatu dute antolatzaileek eta, lana errazte aldera, hamabi zatitan banatu dute ibilbidea: “Urkizu-Ibarkurutze, Ibarkurutze-anbulatorioa eta anbulatorioa-Untzaga, horiek dira tarte nagusiak; baina horien barruan hainbat azpitarte antolatu ditugu. Gonbidapenak egiterrako orduan talde edo elkarte

>>>Urtero moduan, aurten ere, soinean zerbait urdina eta koadrodun zapia eramatea eskatzen dute antolatzaileek. 700 lagun inguru beharko dira ibilbidea osatzeko

bakoitzari tarte bat eman diogu, tarte bakoitzean jendea egongo dela ziurtatzeko; gure kalkuluen arabera 50-60 lagun beharko ditugu azpitarte bakoitza betetzeko, eta 700 lagun ibilbide osoa betetzeko. Ez da erronka makala; horregatik dei egiten diegu eibartar guztiei, euskaltzaleei, maiatzaren 21ean ozen oihukatu behar baitugu eibartarrok euskaraz bizi nahi dugula”. Urtero moduan, aurten ere, soinean zerbait urdina eta koadrodun zapia eramatea eskatzen dute antolatzaileek. Urkizutik Coliseorainoko tartearen egongo direnak, 11:30-11:45 ingururako han egon beharko dute, katea ondo antolatzeko, eta Coliseo eta Untzaga artekoak, berriz, 12:00etarako.

14 urte, 8 edizio gantxillarekin

Badira hamalau urte Tantanez Tantan ekitaldia sortu zela. 2008. urteko maiatzean iritsi zen lehen aldiz euskararen olatua Eibarrera: “Eibarren euskalgintzaren inguruan dihardugun taldeok mahaia osatu genuen, eta erabaki genuen, Euskararen Egunarekin batera, udaberri partean beste zerbait antolatu beharko genukeela. Gantxillak badu bere leku berezia Eibarren, tailerren inguruan eta funtzio garrantzitsua bete izan du betidanik gure herrian. Ekitaldi jendetsua antolatu nahi genuen, eta bi ideiak lotuta irten zen Tantanez Tantan. Aurretik lan handia eskatzen duenez, bi urtetik behin egitea erabaki genuen. Aurtengoa 8. edizioa izango da”.

>>> Etorkizunetik etorri den superheroia da AKE, eta bere misioa Eibar euskaldunagoa egitea da

AKE eta SuperAkeak

Urkizuko iturrian gantxilla urez betetzeko ardua aurten AKE-k izango du. Baina, zein da AKE? “Etorkizunetik etorri den superheroia dugu; 2100. urtetik etorri da misio garrantzitsu batekin: Eibar hobea egitea: garbiagoa, justuagoa, osasuntsuagoa, zoriontsuagoa... eta, jakina, euskaldunagoa”, diote Akebaitik. Berak bakarrik ezin duenez, AKE-k Eibarko 7 urteko (LH2. maila) neska-mutilak aukeratu ditu zeregin garrantzitsu horretan lagun diezaizoten, eta horiek dira SuperAkeak.

Misioak eta erronkak

Urtarrilean bisitatu zituen lehenengo aldiz AKE-k bere laguntzaileak, SuperAkeak. Eskolaz eskola ibili da bere misioaren berri ematen eta, horrez gain, hainbat erronka jarri dizkie bere laguntzaile bereziei, eta horretan jardun dute azken hilabeteetan: “Lehenengo erronka SuperAke bihurtzea izan zen, horretarako konpromisoa hartu dute txikiak, eta dagokien intsignia jaso zuten; AKEberbakerabiltzen ere ikasi dute, Akebake, Akeklik, Akelaket...; bigarren erronka SuperAkeen komikia osatzea izan zen; hirugarrena AkeJolasa egitea, etxean, familian euskaraz jolasteko, eta laugarrena egitasmoa familiei aurkeztea”.



Diplomak eta gonbidapen berezia

Laugarren erronka aste honetan bertan bete dute SuperAkeek. Coliseoan eta Portalean euren familiei aurkeztu diete egitasmoa, baina ez hori bakarrik: “SuperAke zoragarriak direla baieztatzen duen diploma ere jaso dute”, eta baita gonbidapen berezia ere: batetik, AKE-k beteko du gantxilla urez Urkizun, eta, bestetik, SuperAkeek osatuko dute katearen azkeneko maila, berriz ere AKEk gantxilla jaso aurretik. “Euren eguna izango da, eurak izango dira protagonista nagusiak eta, gainera, lehenengo aldiz elkartuko dira Eibarko Su-

perAke guztiak. Horregatik dei egiten diegu heroi hauen familiei ere, egun horretan ezin dute kale-rik egin, bertan egon behar dute, hilabeteetan lan handia egin dute eta ondo merezitako omenaldia egingo zaie. Ez dugu ahaztu behar eurei esker etorkizunean Eibar hobea izango dugula!”.

Bideoa ikusteko:





Primerako giroa "Gurasoak Berbetan" familia arteko ginkanan

Eguraldia lagun, gogotsu aritu ziren ostiralean Gurasoak Berbetan ginkanan parte hartu zuten familiak eta lagunak. Untzaga izan zen abiapuntua eta bertan jakin zuten taldeek zein izango zen euren kolorea eta lehen proba gainditzeko pista.

Untzagatik epaitegi inguruko parkera abiatu ziren eta bertan matematikako ariketa bat ebatzi behar izan zuten. Behin emaitza eskuratuta, taldeek beste pista bat jaso zuten; berehala asmatu eta segituan bideratu ziren denak Eibarko Bizikleta Plazara. Ur-jolasak zituzten bertan zain. Eskatzen zitzaiena lortutakoan hurrengo pistak merkatu plazara eramantzen eta hainbat apaingarri egitea eskatu zitzaien.

Errebalen taldekide guztientzat apaingarriak egin eta jantzi ostean, Urkizura eraman zituen pista eman zitzaien. Leher eginda heldu ziren denak Urkizura eta oraindik ere azkeneko proba gainditu behar izan zuten: euren taldearentzat goiburua eta pankartak sortu behar baitzituzten.

Abiadura bizian bete zuten denek ibilbidea eta parte-hartzaile guztiek jaso zituzten diploma zein dominak, bakoitzak bere mailan: azkarrenak, borrokalarrienak, ausartenak, originalenak...

Giro ezinhobean eta merendolarekin eman zitzaion amaiera ekitaldiari. Antolatzaile zein part-hartzaileen balorazioa oso ona izan denez, datoren ikasturtera begira esperientzia errepikatzeko asmoa adierazi dute.





Egoaiziak 'Eibar eraldatuz' proiektua jarri du martxan. EGOAIZIA

Bidezko Merkataritzaren inguruan hausnartzeko eguna izango da biharkoa

Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna ospatuko da bihar, maiatzak 14. Horregatik, Egoaizia eta Proyde-Proega Gobernuz Kanpoko Erakundeek (GKE) programa berezia antolatu dute bihar goizerako, gaiaren inguruan hausnartzeko eta gogoeta egiteko asmoz.

Goizeko 10:00etatik 14:30era zenbait ekintza antolatu dituzte hasieran aipatutako eragileek, sistema ekonomiko eta komertzialak bidezko prezio bat lortzeko borrokan ari diren ekoizleen produktuei ezartzen dizkieten desberdintasun ekonomikoek jarduteko asmoz.

Antolatzaileen berbetan, “programa alai” eskainiko dute Untzagan, “non ez diren faltako bidezko merkataritzako produktuen salmenta eta doako dastatzea, haurrentzako tailerrak Ludoteka Zo-

Egoaizia mapa birtual bat ari da osatzen, herriko kontsumo-eredua arduratsuagoa, kritikagoa, eraldatzaileagoa eta feministagoa izan dadin.

rionak taldearen eskutik, zuzeneko musika eta bidezko merkataritzako produktuen hiru saskiren zozketa”.

Kontsumo arduratsuak “gure beharrak birplanteatzea eskatzen du”, ekimenaren antolatzaileen berbetan, “behar horiek gizarte jasangarri eta justu bat lortzen laguntzeko”. “Planetarekin eta beste pertsona batzuekin ditugun harremanak eraldatzen eta ekoizpen eta kontsumo eredu alternatiboak erakitzen lagunduko duten aukerak hautatzea eskatzen du”, diotenez.

Horregatik, eibartarrak Untzagan joateko animatu nahi dituzte, “elkarrekin erakitzen eta Eibar eraldatzaile batera joaten jarraitu ahal izateko”, euren berbetan.

Eibar eraldatuz

Aipatutako ekintzez gain, herritarrei kontsulta parte-hartzaile bat proposatuko zaie, ‘Eibar eraldatuz’ proiektuarekin bat egin ahal izateko. Kontsulta horren bitartez, kontsumo arduratsua sustatzen duten irizpideak betetzen dituzten Eibarko dendei edota zerbitzuei buruzko ezagutzak trukatu ahal izango dituzte, iritziak emateaz gain, eta mapa batean irudikatuko dute jasotakoa.

Egoaiziak beste erakunde aliatu batzuekin batera eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eibarko Udalaren babesarekin martxan jarri duen proiektua da ‘Eibar eraldatuz’. Horren bitartez, mapa birtual bat ari da osatzen, herriko kontsumo-eredua arduratsuagoa, kritikagoa, eraldatzaileagoa eta feministagoa izan dadin.

Sortzen diharduen mapa digital horrek ekonomia sozial, solidario eta zirkularraren aldeko apustua egiten duten Eibarko denda eta zerbitzuetan dauden aukerak identifikatzen eta bistaritzen lagunduko du.

“Emakumezkoendako probak gorantza joatea seinale ona da”

ANE SANTESTEBAN • txirrindularia



Erretereriako txirrindularia Eibarren irabaztetik inoiz baino gertuago egon zen, aurreko domekako IV. Eibar Hiria Sari Nagusian bigarren egin baitzuen, esprintean Olivia Baril kanadiarraren atzetik helmugaratuz Toribio Etxebarria kalean. Team BikeExchange-Jayco taldeko ordezkaria sasoiaren dago eta azken aldian jokaturako probetan maila bikainean ari da. Aste honetan ere hainbat probatan hartu du parte eta gaurtik domekara Itzulia Women-ean izango da. Klasikoaren ibilbidea izango duen azken etapan bere etxetik gertu pasatuko da eta ilusio berezia egingo lioke etapa hori irabazteak. Eguazten goizean izan ginen berarekin.

Euskal txirrindularitzaren ikurra da gaur egun Santesteban. Hori hemendik kanpo ere ibilbide luzea egin duela, hainbat taldetan izanda; horrek, bereziki, asko lagundu izan diola guztiz sinestuta dago, "esperientzia aberasgarritzat" baitu. Aurretik, baina, Eibarko Debarrena taldean ere izan zen eta asko gogoratzen ditu orduan bizitutakoak, "horri esker heldu naizelako honaino". Olinpiadetan ere izandakoa da Ane eta seguru berriro ere izango dela hurrengoetan. Emakumezkoen txirrindularitzaren bilakaera ere gogoko du eta hainbat arlotan aurreratu dela uste du, oraindik gorago egiteko aukerak baztertu barik.

Zelako sentazioak izan zenituen domekako Eibar Sarian? Irabaztea ere gertu izan zenuen, ezta?

Askok gozatu nuen lasterketarekin. Etxekoak inguruan sentitzea, familiakoak, lagunak... Inguru horretan gusturago moldatzen naiz eta horrek indar berezia ematen dizu. Errepideak ere ezagunak dira, inguruan asko entrenatu izan dudalako. Irabaztea nahiago bigarren geratzea baino; hala ere, pozik emaitzarekin.

Zelan ikusten duzu zure burua Itzuliaren aurrean?

Batez ere gozatzera irtengo naiz, azken helburutzat garaipean badut ere. Eta azken etapa bereziki markatuta dut, Erreteriatik, etxe ondolik pasatuko garelako.

Taldeburu izango zara proba horretan?

Hori ikusi beharko. Atzo lasterketa izan genuen, gaur bertan beste proba bat dugu Nafarroan... Ikusi behar zelan erreuperatzen garen esfortzu horietatik, taldean gure buruak zelan ikusten ditugun... Horren arabera erabakiko dugu.



Dena dela, sasoi-puntu egokian zaude, ezta?

Orain arte oso ondo aurkitu izan naiz, talde berrira ere berehala moldatu nintzen eta oso ondo hartu ninduten. Guztia ondo bidean doa. Ardenetan eta Flecha Valonan ere ondo moldatu naiz, hilabeteotan taldeburu ere jardunda.

Zein helburu dituzu denboraldi honetarako?

Itzuliaren ondoren, Burgosko Itzulian hartuko dut



Ane Santesteban aurreko domekan jokaturako IV. Eibar Hiria Sari Nagusian zaletuak agurtzen podiumetik.

parte eta, ondoren, egun batzuetako atsedena hartuko dut. Hala ere, helburu nagusiak, jakina, Giroa eta Tourra izango ditut. Taldea ere proba horiei begira dago neurri handi batean.

Zelan aurkitzen zara talde berrian? Pozik zaude emandako urratsarekin?

Alde handia nabaritu dut, materialean, azpiegiturretan eta kontzentrazioetan. Nutrizioa zaintzen ere aurrerapauso handia eman dugu. Edozein gauza behar dudala edo probatu nahi dudala, beti dut eskura. Gizonezkoen taldea ere izanik, hotel berean egon gara behin baino gehiagotan eta esperientzia aberasgarria da. Ikusten dudana da ez dutela diferentziarik egiten gizonen eta emakumeen artean.

Zelan gogoratu dituzu zure ibilbidearen hasieran Debarrenan jardundako urteak? Eibarko Kirol Sarietan txirrindularitza arlokoa ere jaso zenuen...

Neskon probei askoz gutxiago erreparatzen zitzairen sasoiak ziren, baina guztioi lagundu zigun Debarrenak egindako ahaleginak. Gogoan dut Juanjo Sebastianen kemena, taldekide izan nituenak... Urte politikak izan ziren. Gure zaletasunari eusteko bidean. **Zelan ikusten duzu emakumezkoen txirrindularitzaren bilakaera?**

Urtetik urtera hobetzen goazela esango nuke, urratsak aurrera egin ditugula, eta egiten dihardugula, esango neuke. Gero eta lasterketa gehiago ditugu denboraldian zehar, proba berriak antolatzen dituzte. Azken urteotan hazkunde handia izan da, World Tourretik kanpo dauden taldeek jarraitzeko arazo handiagoak izango badituzte ere. Denon artean emakumezkoen txirrindularitza profesionalizatzen saiatu behar dugula uste dut. Gero eta firma gehiago daude gizonezko eta emakumezkoen taldeak dituztenak.

Zein proba irabazi nahiko zenuke? Zeinek egingo zizun ilusio berezia?

Edozein hartuko nuke pozik. Postua egitea gauza bat delako, eta irabaztea beste bat. Garaipenak ez dira merke saltzen. Itzulia neureganatzea ondo egongo zen, Klasikoa ere zer esanik ez.

Irabazi dituzunetik, zeinek asetu zaitu gehien?

Edo, irabazi gabe ere, zein lorpen gogoratzen duzu?

Eskuratutako Espainiako lehenengoko txapela berezia izan zen, beti gogoratuko dut: 23 urtetik azpiko mailakoa izan zen, eta horrekin geratuko nintzateke. Bestalde, iaz Giroan lortutako zazpigarren postua ere pozik egoteko modukoa da, aurretik bederatzigarrena ere lortua bainuen.



Eibarren ere, Altamira. PERIKO IRIONDO

Asola Berrik hartuko du bihar Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketako 7. tiraldia

Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketaren 51. edizioa aurrera doa eta zapatu honetan Asola Berri gure herriko bolatokiak hartuko du zazpigarren jardunaldia, arratsaldeko 17:00etan hasita. Saillkapen nagusian lehenengo bi postuetan dauden eibartarrak, beraz, etxean jokatuko dute euren postuetan sendotzeko asmoz. Leintz-Gatzagan jokatutako seigarrenean Lasturreko Boni Plaza nagusitu zen, zazpi txirlorrek, Uda-

lako Jesus Agirrerren aurretik; azken horrek sei bota zituen eta bostekin geratu ziren Ganix eta Juan Luis Rodriguez eibartarrak. Guztira 64 bolarik hartu zuten parte tiraldi horretan. Bestalde, Asola Berriko Iñaki Gojenola (22 txirlo) eta Garikoitz Rodriguez (21) tiralariak jarraitzen dute saillkapenaren gorengoan, San Andreseko Jose A. Nuñez (19) eta Oier Ugarteburu eibartarraren (18) aurretik.



Ipuruako gimnastek maila gorenean dihardute lehiatzen

Ipuruako gimnasia erritmikoko taldeak gero eta lehiaketa gehiagotan sartuta ditugu sasoi honetan, udazkenean izango dituzten Espainia mailako txapelketetan modu onean erantzuteko helburuarekin. Horrela, Santanderren jokatutako Espainiako Kopako lehen fasean, senior taldeak laugarren postua eskuratu zuen eta jubenil mailakoa bederatzigarren sailkatu zen, 60 talderen artean. Udaberrian indibidual mailako lehiaketek pisu berezia izaten dute eta hor ere Ipuruako oinarri mailakoek bikain jardun izan dute: Naroa Alonso jubenila 10. izan zen 200 gimnasten artean Espainiako txapelketan eta Haizeder Arguiz kadetea 21. postuan sailkatu zen, 160ren artean.

Bihar amateur eta eskola mailakoen txanda izango da Irunen jokatuko den Gipuzkoako txapelketan. Kadete, jubenil eta senior mailakoek Euskadiko txapelketarako txartelaren bila irtengo duten bezala, eskola mailako bi taldeak tituluaren bila kantxaratuko dira eskola-jokoetarako saillkapena lortzeko asmotan.



Leintz-Gatzagan jokatutako seigarren tiraldia aurreko asteburuan.

Pilota Eskolako Amillategi-Gil bikote alebina Gipuzkoako txapel-dun

Donostian aurreko asteburuan jokatutako finalean irabazita, Aratz Amillategi eta Liher Gil pilotariak osatutako bikoteak Gipuzkoako Errendimendu mailako txapela irabazi zuten alebin mailan. Horrez gain, Astelenan jokatutako partiduetan ere etxeokak garaile izan ziren: Agirresarobe eta Azkargorta seniorretan eta Iraolagoitia jubeniletan. Gaur, bestalde, lau partidujokatuko dira Katedralean 18:00etan hasiko den jaialdian: lehenengo biak Pilota Eskolako artekoak izango dira, eta jarraian Udaberri txapel-



ketako infantil mailakoak, Azpikueta-Segurola eta Varona-Urkia-ga eibartarren parte-hartzearekin.

Eibar Rugby Sant Cugat-en ere 7. geratu da Erreginaren Koparen bigarren jardunaldian

Eibarko taldea A Coruñan Erreginaren Kopako lehen jardunaldian sailkatu zen postu berean geratu da aurreko asteburuan Sant Cugat-en jokatuako bigarrenaren. Rugby-7 modalitate olinpiko horretako torneoak oso antzerako jardunaldiak bizi izan ditu orain arte, hilaren 21ean eta 22an Eibarren izango diren finalei begira. Eibar Rugby Taldeak ere ibilbide berdina jarraitu du eta zapatuko jardunaldian bi garaipe eta porrot bakarra izan eta gero, domekan finalerdiaren bila eta partidu borrokatuan Sant Cugat etxeko taldearekin galdu zuen. Jarraian 5. eta 6. postuen bila jokatuakoa eibartarrek gutxigatik galdu zuten

Turiarekin (19-26), azkenean zazpigarren geratzeko orain ere Sevillari 34-0 irabazita.

Azken jardunaldia Eibarren

GPS 7s Reina Iberdrola Kopako finalak Eibarren jokatu dira datoren asteko asteburuan. Bi jardunaldiak 09:00etan hasiko dira eta egun osoan jokatu dira. Eibar Rugby Taldeak Rucksport agentziarekin antolatutako egitarauan entretenimendu-guneak prestatu ditu (jantzi-erdi, musika eta zozketak) "bertaratzen diren zaletu guztiek giro onenaz goza dezaten". Ohorezko mailako 12 taldek seven modalitatean jokatu dute Unben, zapatuan



Eibarrek hartuko ditu azken jardunaldiak.

sailkatzeko eta domekan Erreginaren Kopako finalak jokatzeko.

Zazpi domina Deporreko atletentzat Euskadiko txapelketetan

Aurreko zapatuan Durangon jokatuako 18 eta 20 urte azpikoen Euskadiko txapelketetan gure herriko ordezkariak uzta bikaina jaso zuten jokatuak probetan. Horrela, Garoa Magunazelaiak (20tik azpikoetan, xabalina) eta Imanol Egidazuk (18tik azpikoetan, 400

metro hesiak) txapela jantzi eta urrezkoa irabazi zuten. Zilarrezkoa bereganatu zuten, 20tik azpikoetan, Jone Acuña (1.500 metro) eta Kepa Markezek (diskoa); eta 18tik azpikoetan, Enara Magunazelaiak (xabalina) eta Urko Martinezek (altuera). Brontzezkoa ekarri

zuen etxera Nora Zabalak, 20tik azpikoetako luzera jauzian. Manex Sarasua bosgarren sailkatu zen luzera jauzian eta Leire Martinek, 400 metrotako bere seriea irabazi bazuen ere, finaletik kanpo geratu zen. Egun berean Donostian jokatuak 16 urtetik azpikoen Gipuzkoako txapelketan, bestalde, Klub Deportiboko bost atletak hartu zuten parte.

Atletismo taldeko txikienek **-argazkian-**, bestalde, hiru asteburutan jokatuak Gipuzkoako txapelketetan (lehenengo saioa Unben jokatu zen) beste lau domina ekarri dituzte Eibarko klubera: infantil mailan, Elene Arrazola lehenengo izan zen 80 metrotan eta bigarren 150 metroko proban, eta alebinitan Nora Ortueta nagusi izan zen Vortex-en eta bigarren pelotarekin. Euren taldekideek ere hainbat postu aipagarri eskuratu zituzten.



Asteburu garrantzitsua Arrate Eibar Eskubaloiko lehen bi taldeentzat

Gure herriko eskubaloiko emakumezkoen lehen taldeak gaurtik domekara arte jokatu du mailaz igotzeko hurrengo fasea. Zaragozan jokatu dute eibartarrek eta C multzo horretan bertako Imdeam La Jota, Balonmano Montequinto eta Eon Horneo Alicante izango dituzte aurkari lehen postua eskuratzeke borrokan. Zilarrezko mailarako igoera jokoan dagoen lehiaketa hori erronka zaila izango da Arrate Eibar Eskubaloiantzat, baina aurretik ere ezusteko bat baino gehiago eman dituzte gure herriko jokalariek eu-

rentzat berria zen mailan eta duten onena eskainiko dute oraingoan ere.

Horrez gain, 1. Nazional Mailako gizonezkoen taldeak liga amaituko du bihar Ipuruan, 19:00etatik aurrera Hondarribia Bidasoa hartuta. Igoera faserako sailkatuta orain dela aste batzuetatik, partidu hori gertzen zaio liga partidurik galdu gabe amaitzeko: meritu handiko lorpena esku-eskura dute Fernandoren mutilek azkenurrekoan ere Ereintzari bere etxean 24-29 irabazi eta gero. Nagusitasun handia erakutsi dute eibartarrek denboraldi osoan,



berdindutako bi partiduak kenduta beste guztiak irabazi dituztelako. Igoera faserako taldea ondo presatzen diharduela beste seinale bat.



Mendizaleen azken irteerako irudia, Lokiz Natur Parkean.

Irteera polita antolatu dute Deporreko mendizaleek hilaren 21erako Nafarroan

Deporreko mendikoen hurrengo irteera Bidarrai herrian hasi eta Baztango Amaiurren amaituko da, tartean 967 metroko Alkazuri, 1.090ko Goramakil eta 1.078ko Gorramendiko tontorrak gaudituta. Guztira 19 kilometrotik gora duen ibilbidea egingo dute, 1.530 metroko desnibelarekin igotzeko eta beste 1.325eko desnibela jaistekorakoan. Udaberriaren egiteko irteera ezin politagoa da Deporrekoen hurrengo, tontor-

horietatik dauden bistak izugarriak direlako: "Alkazuritik Artzamendi, Larrun eta Haurza ikusi daitezke". Baztan haraneko begiralekurik onena jotzen duten Gorramendikoa, bestalde, "Lapurdi, Behe Nafarroa eta Gipuzkoako hainbat mendiren irudi txundigarriak goza dezakegu". Izena emateko edo informazio gehiagorako: martitzen eta eguenetan Deporreko bulegoan (19:30-20:30) eta 943-201904 zenbakian.

Udaberri traila antolatu dute hilaren 22rako

12 kilometro izango ditu Kalamua Korrikalari Taldean datorren aste-ko domeka goizerako prestatu duen Udaberri trail-aren edizio berriak. Klub Deportiboaren aurretik irten- da, toki berean izango du amaiera proba horrek eta bi ordu eta erdian distantzia hori osatzea aurreikusit dute. "Zailasunik gabekotzat" jo dute traila antolatzaileek eta pilatutako desnibela 650 metrokoa izango da. Goizeko 08:30ean irtengo dute parte-hartzaileek eta, doanekoa bada ere, lana errazteko beharrezkoa da izena ematea kalamuakorrikalaritadea@gmail.com helbidean. 2014an hasitako ohiko probak seigarren edizioa biziko du hilaren 22an.





Argazkilaritza kalera aterako dute biharko topaketetan



Klub Deportiboko argazkilarien eskutik, era guztietako erretratuak betetzen dituzte herriko txoko guztiak maiatza ailegatzeko den bakoitzean. Egitarauko erakusketa guztiak martxan daude eta bihar kalera irtengo dira, Untzaga plazatik pasatzen diren guztiak irudiaren mundura erakartzeko prest.

Eva Francorekin
elkarrizketa:



Erakusketen
inaugurazioa



Eibarko Klub Deportiboko argazkilaritza-taldeak antolatzen duen Argazkilaritza Maiatzean-en baitan, hainbat erakusketa zabaldu dituzte herriko hainbat aretotan eta horietako batzuk inauguratu zituzten barixakuan: Portalean Elena Plaza, Eva Franco, Koldo Badillo eta Oskar Mansoren lanak ikus daitezke, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era. Eta Topalekuan Juan Antonio Palacios eibartarraren “Taberna o fragua” izenburukoak bisitatu daiteke, astelehenetik domekara, 19:00etik 21:00etara. Bi erakusketa horiek hilaren 29ra arte egongo dira zabalik.

Horrez gain, Untzagako jubilatutako etxean XLVIII. Nazioarteko Gipuzkoa Saria ikus daiteke, astelehenetik domekara (20:00etatik 21:00etara). Eta hilaren 31ra arte, “Argizaiola 2021” hartuko du Depor tabernak, eta Portalea tabernak, berriz, Eibarko Klub Deportiboko argazkilarien lanen erakusketa.

Beti bezala, Argazkilaritza Maiatzean-en baitan antolatu dituzten erakusketa guztiak maila goreneko lanekin osatu dituzte 20. edizio honetan ere eta, horregatik, denak ikustera joateko gonbidapena egin dute antolatzaileek: “Horrelako maila handiko erakusketak aldi berean ikusteko modurik ez da egoten, ezta hiriburuetan ere. Horregatik, herrian bertan egonda, ezin daiteke galdu ikustera joateko aukera, benetan merezi du eta”.

Aurtengo egitarauan aipamen berezia merezi du Portalean ikus daitekeen Eva Francoren “Maskarada” izenburukoak, erakusketaren ohiko adieratik haratago doa eta: argazkilari zumaiarraren proiektu pertsonala da eta erakusketako lanen bitartez Euskal Herriko kondaira, mito eta tradizioetan inspiratutako pertsonaiak aurkezten dizkigu. Argazkietan

ikus daitezkeen irudiak lortzeko eszenografiak eta estilismoak sortu ditu, berak aukeratu eta manipulaturako janzkera eta osagarriekin. Horretarako, elkarlanean aritu da beste artisau eta artista batzuekin: Lola Altolagirrek, Kris Merakik eta Yolanda Sanchezek diseinaturako piezekin jantzi ditu modeloak eta hauek Harry Watkinsek eskusiboki egindako oinetakoetan posatu eta altxatzen dira. Elkarlan horren emaitza erakusten duten argazkiekin batera, erabilitako pieza, jantzi eta osagarriak ere ikus daitezke erakusketan.

Topaketak kalean, bihar arratsaldean Untzagan

Erakusketekin batera, hilabete osorako jarduerak hartzen ditu bere baitan Argazkilaritza Maiatzean-eko programak. Horrela, aurreko asteburuan erretratutaileran eskaini zuen arlo horretan maila gorenean dagoen Estela de Castrok.

Eta bihar, berriz, antolatzaileentzat bereziki kutuna den jarduera, “Topaketak kalean” izenekoa, hartuko du Untzaga plazak, 17:00etatik 21:00etara. Pandemiak derrigortutako etenaldiaren aurreko planari helduko diote berriz ere eta, besteak beste, argazkiak kalean bertan erakutsiko dituzte eta nahi duten guztiak argazkiak egingo dizkiete, plazan bertan. Gainera, aurten lehen aldiz benetako argazkilari minuterok hartuko du parte: Clemente Correderen eskutik argazkilaritza kimikoa eta laborategia bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dugu. Antolatzaileen berbetan, “argazkilaritza minuterok esaten zaio, hain zuzen, minutu gutxi batzuetan zilarrezko gelatinarekin paperean irudia lortzen dugulako, prozesu kimikoen bidez eta kalean bertan”. Animatzen direnek, beraz, argazkia egin eta berehala jasoko dute, sasoi batean oso zabaldua egon zen teknika honi esker. Klub Deportiboko argazkilarien berbetan, “mundu guztiak oroigarri gisa bere etxean argazki bat izatea posible egin zuten kaleko erretratistek egin nahi diegun omenaldia izango da”.

Eta biharko hitzordu garrantzitsuen ostean, hilaren 29an, Euskal Jaiko domekan, argazki rallya egingo da. Betiko moduan, zuribeltzean zein digitaletan parte hartzeko aukera egongo da eta izen-ematea egunean bertan egingo da, 08:30etik 09:30era, Klub Deportiboan.



Clemente Corredera argazkilaritza minuterokaren teknika erabiliko du argazkiak egin eta momentuan errebelatzeko, Untzagan bertan



Elena Plaza madrildarrak dantzaren eta marmoken arteko paralelismoa islatu nahi izan du. SILBIA HERNANDEZ



Martin Zalakain eszenatokitara itzuli da

Pandemiak behartutako bi urteko etenaldiaren ondoren, Juan Antonio Urbeltzek zuzendutako Argia dantzari taldearen Martin Zalakain ikuskizuna eszenatokitara bueltatu da. Asteburu honetan Zornotzan eskainiko dute eta, hurrengoan, Getxon. Azken emanaldia urriaren 23an izango da, Donostiako Victoria Eugenia antzokian. 2017an, San Martin egunez Bilboko Arriaga antzokian estreinatu zenetik, 20 aldiz eskaini dute dantza eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizuna, 17 herritan, “sarrerren salmentan izandako eskaeragatik, herri batzuetan bi saio egin baitziren”. Orotara, 12.000 ikusle izan ditu orain arte.



Breaking Eibar ekimenean parte hartzeko izen ematea zabalik dago

San Juan jaien bueltan, ekainaren 11n Breaking Eibar dantza urbanoen jaialdia egingo dute eta bertan parte hartu nahi dutenentzat izen-ematea zabalik dago, breaking.eibar@gmail.com helbidera idatziz. Partehartzaileak ‘Breaking’, ‘All style’ eta ‘Octogon’ izeneko modalitateetan arituko dira dantzan, nor baino nor, indarrak neurtzeko lehian. ‘Breaking’-ean 32 bikotek eman ahal izango dute izena gehienez eta ‘All style’ delakoan, berriz, 25 lagunek.



Euskara Aurrera-k deitu duen manifestazioarekin bat

Euskarak XXI. mendean dituen “zailtasunei eta erronkei” aurre egiteko moduko erantzun baten beharra aldarrikatu dute euskalgintzako hainbat eragilek, aste honetan Donostian egindako agerraldian: “Herri bultzada berri bat”. Berba horiek erabili zituzten Joanmari Larrarte Elkar-eko zuzendariak eta Alizia Iribarren AEK-ko koordinatzaile nagusiak, agerraldi bateratuan irakurritako adierazpenean. Horrela, hamabi eragilek atxikimendua adierazi zioten Euskara Aurrera egitasmoak hilaren 21erako deitu duen manifestazioari: Euskalgintzaren Kontseilua, Euskaltzaleen Topagunea, Euskal Herrian Euskaraz, Jakin, Elhuyar, Pantailak Euskaraz, Bai Euskarari, Maizpide euskaltzia, Ikastolen Elkarte, Uema, AEK eta Elkar-ek. Agerraldian, besteak beste, euskararen kontra aspaldian hartu diren erabakiak ekarri zituzten gogora eta, horrelakoei erantzuna emateko eta “Euskal Herri euskalduna lortzeko”, hilaren 21ean Antiguako tuneletik abiatuko den manifestazioan parte hartzeko deia egin diete euskaltzale guztiei eta, horrekin batera, sinadura bilketa abiatu dute Change.org plataforman.

Zaintzari buruzko bakarrizketa feminista eta tertulia

Zaintzaren gaiari helduta, Eibarko Sortuk bakarrizketa feminista antolatu du “Eibarko emakume* ezker-tiar eta independentistentzat”. Saioaren hasieran Nerea Ariznabarreta artista eibartarrak bakarrizketa eskainiko du eta, ondoren, tertuliarako tarte zabalduko da. Luntxarekin amaituko dute datorren barixakuan (hilak 20), 18:30ean Bilgunean egingo den saioa.





Sanjuanetan txosna ipintzeko eskaerak aurkeztu daitezke

San Juan jaietan txosnak jartzeko eskaerak Udalean aurkezteko epea zabalik dago, hilaren 23ra arte. Prestatu beharreko dokumentazioa honako hau da: San Juan jaietan txosnak jartzeko eskaera behar bezala beteta; eskatzailearen NAN, IFK edo horren balio bereko beste dokumenturen bat; legezko ordezkape-naren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua, eta ordezkariaren egiaztape-na, dokumentu bidez; eta elikagaien manipulazai-le karneta. Bestalde, koadrilek jaietarako dirulaguntzak eskatzeko epea ekainaren 10era arte egongo da zabalik. Biei buruzko informazio zehatza Udalaren web orrian kontsultatu daiteke.



Lan berria aurkezteko kontzertua, gaur Zai-zoin

“We are apes, hello!” taldearen lan berria, “Something Happier” izenburua duen EP-a aurkezteko kontzertua emango du taldeak gaur, Bittor Sarasketa kalean dagoen Zai-zoi tabernan. Mikel Pizarro eibartarraren eta Andoni Conde ermuarraren taldeak lan berriaren abestiak jo ditu azken kontzertuetan, baina gaur Eibarren eskainiko duten saioan egingo dute aurkezpen ofiziala.



‘Eibarko emazteen aztarnak’ Donibane Garazin

Herriko emakume artista talde batek ‘Eibarko emazteen aztarnak’ erakusketa zabaldu zuen zapatuan Donibane Garaziko apezpikuen presondegian, eta hilaren 28ra arte egongo da ikusgai, Itzal Aktiboa elkartearen eskutik. Eibarko emakumeek hiriaren garapenean eta balioen transmisioan izan zuten eragina ezagutarazteko sortu zuten erakusketa Virginia Arakistain, Esther Astarloa Izarra, Marina Barrena Ortuoste, Maialen Belaustegi Lapeyra, Bakarne Elejalde, Esther Galarza, Natalie Hickey, Leire Kareaga Azkarraga, Viviane Straub, Iratxe Unanue Osoro eta Esperanza Zabala artista eibartarrek.

Gazteentzat Urdaibaira joateko irteera antolatu du Udalak

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek Lekeitio-ko multiabentura parkera eta Karraspio hondartzara joateko aukera izango dute ekainaren 11n, Eibarko Udalaren eskutik. Irteeraren prezioa 15 eurokoa da eta aldeztu aurretik izena eman behar da, maiatzaren 23tik 30era bitartean Udalaren webgunean eskuragarri egongo den formularioa beteta.


Pagatxa elkartearen bideo-foruma



Pagatxa emakume elkartearen eskutik bideo-forum saioa egingo da astelehenean Portalean (areto nagusian), 18:30ean. Emakumeen Istoriok zikloaren baitan Hellen Keller idazle, aktibista eta hizlari estatubatuarren figura aztertuko dute, Patricia Perex Coto dinamizazai-learen laguntzarekin. Sarrera librea da eta ez da beharrezkoa aurretik izena ematea.



AURKITU 8 EZBERDINTASUNAK



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	2					4	5	
	8			4	7	3		
				2			9	
5	9	4		3			7	
7				5		4	8	2
9				6				
		5	4	7			1	
1	4						5	

8	5	2	6	9	1
1	9	6	3	7	4
2	7	5	8	4	1
3	8	5	1	2	9
4	1	3	7	8	6
5	2	9	4	1	3
6	3	7	5	8	2
7	4	1	9	6	5
8	9	2	3	7	4

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

			5		9	4	
	2				8	5	
		4	8		6		
			7	1	9		
9	7					4	1
		1	3	9			
		7		6	1		
2	1					6	
8	3		2				

S
U
D
O
K
U

soluzioa

8	5	2	6	9	1
1	9	6	3	7	4
2	7	5	8	4	1
3	8	5	1	2	9
4	1	3	7	8	6
5	2	9	4	1	3
6	3	7	5	8	2
7	4	1	9	6	5
8	9	2	3	7	4

Maiatzak 13/19

BARIXAKUA 13

MUSIKA

19:00 "We are apes, hello!" taldea. Zai-zoi taberna.



ANTZERKIA

20:00 "Altsasu" (La Dramática Errante). Gazteleraz. Coliseo.



MUSIKA

22:00 "Aitorpenak". Tas-Tas taberna.



ZAPATUA 14

MENDI IBILALDIA

10:00 Arratera mendi ibilaldia (Sare). Urkizutik abiatuta.

EIBAR ERALDATZAILEA

10:00/14:30 Bidezko Merkataritzaren Munduko Egunaren inguruko jarduerak. Untzaga.

ARGAZKILARITZA

MAIATZEAN

17:00 Topaketak kalean. Untzaga.

KONPONFEST

17:00/19:00 Mural margo-keta, futbolin txapelketa, pintxopote. Gaztetxea.

JAM SESSION

19:30/21:30 Marrazketa saioa. Musika zuzenean. Biharrian (Ubitxa).

DOMEKA 15

IRTEERA

09:45 Ibur-erreka inguruaren garbiketa eta azterketa. Untzagatik abiatuta.

SAN ISIDRO

11:00 Meza, bertsolari eta trikitilariekin. Dantzak (Kezka) eta prozesioa. Eskualdeko produktuen dastaketa.

12:30 San Isidroetako XVIII. Aizkolari Txapelketa. Harrijasotzailak.

14:30 Bazkaria, Kantabrian.

17:30 Idi-demak. Arrate.



ASTELEHENA 16

BIDEO-FORUMA

18:30/20:00 Emakumeen Istorioak: Hellen Keller.



MARTITZENA 10

IBILBIDE OSASUNTUAK

10:00 Herritar guzientzat zabalik, 5 kilometro inguruko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkarteak antolatuta. Ardantza 11tik abiatuta.

TAILERRA

18:00/20:00 Adimen-emozionala, Itsasne Gallastegi Agifes-eko psikologoarekin. Agifesen lokala (Urkizu).



EGUAZTENA 18

IBILALDIA

09:09 Zumaia-Zarautz. Bazkaria eraman. Trenaren irteera ordua, Ardantza (09:11ean Estaziñotik).

DANBORRADA

19:00 Sanjuanetako umeen danborradarako entsegua.

20:00 Helduena. Beistegi eraikina (B. Sarasketa, 7).

EGUENA 19

HITZALDIA

10:00/12:00 "Emakumeak abstrakzioan". Ricardo Aldama, Arte Ederretako irakaslearen eskutik. Armeria Eskola.



GNAT-ZINEMA

19:00 "The Magnitude of All Things" (Jennifer Abbot). Coliseo.

DANBORRADA

19:00 Amañako danborradarako haurren entsegua.

20:00 Helduena. Amañako eskola.

ERAKUSKETAK

Maiatzaren 29ra arte:

- **ELENA PLAZA, EVA FRANCO, KOLDO VADILLO, OSKAR MANSO.** (Portalea).
- **JUAN ANTONIO PALACIOS.** (Topaleku).
- **XLVIII. NAZIOARTEKO GIPUZKOA SARIA** (Untzagako Jubilatuta Etxea).

Maiatzaren 31ra arte:

- **ARGIZAIOLA 2021.** (Klub Deportiboa).
- **EIBARKO KLUB DEPORTIBOA.** (Portalea taberna).

Ekainaren 5era arte:

- **"Istripuak eta Prebentzioa. XX. Mendeko kartelak".** (Armagintzaren Museoa).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

ANTZERKIA

13an (barixakua) / 20:30

Ermua Antzokia

"Los Hermanos Machado"

MUSIKA

13an (barixakua) / 20:45

Betiondon

Vertigo Rock kontzertua

14an (zapatua) / 16:30

Betiondon

Vertigo Rock kontzertua.

DEBA

DEBARRAREN EGUNA

15ean (domeka)

07:30 Lizartzako gaiteroak.

08:30 Entzierroa.

11:00 Meza Nagusia.

11:45 Konpartsen desfilea.

13:00 Aurreksua.

18:00 Erraldoien alardea.

19:00 Erromeria.

SOKATIRA

15ean (domeka) / 11:00

Calbeton zumardia

Euskal Herriko Sokatira Txapelketa.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **14an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **15ean:** 17:00, 20:00
- **16an:** 20:30

"Alcarrás"

Zuzendaria: Carla Simón



2 ARETOA

- **14an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **15ean:** 17:00, 20:00
- **16an:** 20:30

"En su punto"

Zuzendaria: Christoph Thompson



ANTZOKIA

- **14an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **15ean:** 17:00, 20:00
- **16an:** 20:30

"Doctor Strange..."

Zuzendaria: Sam Raimi



Arrate Urzuriaga Bollar

3. URTEURRENA
2019/05/14

"Badira hiru urte joan zinela, baina betirako jarraitzen duzu gure bihotzean"



- ETXEKOAK -

FUNEUSKADI
Grupua Antzokia

FUNERARIA MUGICA
Funeuskadi



24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar:
Otaola, 27

Eibariko bulegoa:
Siderbarrata, 20

Elgoibar:
Xulion, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Ermusko bulegoa:
Marquis de Valdespina, 16

Eibar - Elgoibar - Ermua - Bilbo - Barakaldo - Leioa - Getxo - Sestao
Portugalete - Santurtzi - Basauri - Galdakao

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue.



Zorionak, **LUCIA!!!**
Domekan 6 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **MARA**, bixar 9 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ANDER**, zure 7. urtebetetzian!! Zure anaixa Danel eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **EÑAUT**, etxeko selfiegilliak eguaztenian 11 urte egin zittuan-eta. Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **JON!!!**
Gaur 4 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat, txapeldun. Etxekuen partez.



Zorionak, **MIKEL**, hillaren 17xan 5 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **NILLE!**
Domekan 4 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **EDER**, etxeko txikixak astelehenian 5 urte beteko dituu-eta! Asko maite zaituen Ireni, aitta eta amaren partez.



Zorionak, **JULEN**, hillaren 17xan 5 urte beteko dozuzelako. Aitta, Malen eta famelixa guztiaren partetik.



Zorionak, **EKHI!**
Atzo 10 urte bete zenuzuen, mutil haundi! Musu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, **AMANE** eta **LIBE!!!**
Hillaren 12xan 10 eta 7 urte bete dozuzelako. Musu erraldoi bat Pantxika, Martxel eta Inharren partez.



Zorionak, **POL** eta amatxo **LEIRE!** Oso ondo ospatu zuen egun politu hau. Asko maitte zaituen eta, batez be, Pello, Nile eta aitaionen partez.

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisia salgai Jardifieta kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Pisu altua eta eguzkitsua. Dena kanpora begira. 673802614.

1.2. Errentan

- Etxebizitza alokagai Deban udarako, hilabeteka. 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi eder. Bista paregabeak. Igo-gailua 0 kotatik. 657795876 (arratsaldez).
- Zumaian 3 logelako alojamen-

tu turistikoa asteka errentan eskaintzen da uda zein beste edozein urtarotan (gara-jea aukeran). 2019an guztiz erreformatua. Zumaia erdian dago, taberna girotik kanpo. 678222229.

- Zumaian 2 gelako etxe berria alokagai ekaina, uztaila, abuztua eta irailerako. 4 lagunentzat aproposa. Ilogailuarekin. Hondartzatik gertu. 722612247.
- Senar-emazteak 2 logelako pisua hartuko luke alokairuan. Erreferentziekin. 667060292.
- Zumaian uztaila eta abuztura-ko 3 logela dituen etxe bat topatzen dihardugu. 659261089.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Lursail/terreno bat erosiko nuke Eibarren edo inguruan. 669176108. Natalia.
- Trasteroak salgai Eibarko erdialdean. Sarbide onarekin. 2.000 eurotik hasita. 620099120.

3.2. Errentan

- Garaje itxi handia alokagai Eibar erdian, Unzaga Plaza hotelaren ondoan. 688669993.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624640803.
- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko eta beste edozein lanetarako. 624669438.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta garbiketarako egiteko. 602490595.

- Emakumea eskaintzen da garbiketara lanak egiteko. 690384909.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulua eta esperientziarekin. 603514085.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 631143972.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 631721980 eta 641418753.
- Gizonezkoa eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko, sukaldari bezala etabar. 617480009.
- Neska euskalduna eskaintzen da menpekotasun egoeran daudenekin lan egiteko. Akreditazioarekin. Urte askotako esperientzia. 667376212.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Agiri sozio-sanitarioarekin. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (gauze ere) eta etxeak garbitzeko. Habilitazioarekin. 641322939.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Egun osorako disponibilitatea. 602012075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Egun osorako disponibilitatea. 632642320.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauze eta asteburuetan ere. Titulazioarekin. 612540997.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. 641421135.
- Gizonezkoa eskaintzen da baserri eta landetan lan egiteko. 624680606.
- Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 692932984.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o euskalduna eta esperientziaduna behar da pintxo taberna batean. 661955980.
- Saltzailea behar da Eibarko harategi batean. 647526441.
- Pertsona euskalduna behar da goizetan umea haurreskolara eramateko. 699495279.
- Higienistak eta laguntzaileak behar dira Eibarko hortz-klinika batean. 621226244.
- Emakumea behar da astelehenerik ostiralera (goizez 3 ordu eta arratsaldez beste 3) etxeko lanak egin eta emakume bat pasiatzeko. Gida-baimena izatea baloratuko da. 670410107.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitatea prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Menpekotasuna dutenak mugitzeko garabia, erroberadun-aulkia eta taka-takak salgai. 661874548.

6.2. Eman

- 1.500 piezetako puzzleak oparitzen dira. 619655583.
- Txakurkume ezin politagoak oparitzen dira. 688642761. Asier.

Eibarko erdigune berria



Neinor Homes sustatzailea Arrate Homes-en merkaturatzearekin jarraitzen du. 82 etxebizitza berrien promozioak iaztik ditu martxan eraikuntza-lanak. Eraikina Eibarren erdigunean kokatzen da eta bertako bizilagunek gimnasioa eta gourmet aretoa edukiko dute erabilgarri.

ARRATE HOMES UDALERRIKO ERDIGUNEAN DAGO. Coliseo Antzokiaren, Erreal plazaren eta etorkizuneko erabilera anitzeko zentro modernoaren ondoan. Zentro horrek udal-merkatua eta mota anitzeko gizarte eta kultura ekitaldiak hartuko ditu, gune hau udalerriko erreferente bihurtuz.

PROIEKTUA LAU ERAIKIN INDEPENDENTETAN garatuko da, beheko solairua, sei altuera eta terraza zabal eta argitsuak dituzten atikoekin. Arrate Homes osatzen duten eraikin berriek, lehendik daudenekin batera, diseinu zainduta plaza bat osatzen dute sarrera emanez etorkizuneko jabeek erabili ahal izango duten gimnasioari eta sukaldea duen komunitate-lokalari.

ARRATE HOMES ETXE-AURRE AIREZTATU DOTOREA duen multzo arkitektonikoa da eta, materialen hautaketa arduratsuari esker, eguneroko bizitza kalitate handienaz bizitzeko aukerarik onena. Promozioak Breeam iraunkortasun-zigilua izango du eta domotikoko aurre-instalazioarekin dator, kostupean pack domotikoa eskuratzeko aukerarekin.

BEZEROEN ESKARIAK ASETZEKO, ARRATE HOMES-EN 1 ETA 4 LOGELA ARTEKO ETXEBIZITZAK eskaintzen ditu. Etxebizitzak argia, orientazioa eta antolamenduak ahalik eta gehien optimizatuz diseinatu dira. Logela nagusia suite motakoa da, bainugela pribatua, persiana elektrikoa eta horma-armairuarekin. Etxebizitza guztiek terraza zabalak dituzte, bereziki handiak atikoetan.

ARRATE HOMES

INFORMAZIO GEHIAGO: <https://www.neinorhomes.com/promocion/arrate-homes> edo 900 11 00 22

Neinor Store: Bidebarrieta, 6 - Eibar

Kia-ren SUV Gama.

Eskaintza bereziak maitzaren 23ra arte.



Movement that inspires

KIA
NAIA CAR

📍 Apalategi, 1 EIBAR

☎ 943 70 70 33 🌐

www.kia.com

CO₂ emisio konbinatuak WLTP [g/km]: 33-146. Konsumo konbinatuak WLTP [l/100km]: 1,4-7,4. Kontsultatu promozioaren baldintzak eta betebeharrak www.kia.com helbidean. Eskaintza balagarria Penintsula, Baloariak, Mallia eta Andorrako Kia kontzesionario-sarean. *Kontsultatu Kia garantien eskuliburua.

